

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko urriaren 16tik 20rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...


➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: KPI



Datuaren analisia

Irailean, kontsumorako prezioen indizeak urte arteko % 1,5 egin zuen gora eurogunean, espero zen moduan. Halaber, iraileko kontsumorako prezioak % 0,4 igo ziren eurogunean, aurreikusi moduan. Bada, garraiorako erregaiak, jatetxe eta kafetegiak eta tabakoa izan dira tasaren igoeran eragin handiena izan dutenak.

Adierazlearen azalpena

KPIa hilero prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: FEDen LIBURU BEIXA



The Beige Book

Datuaren analisia

Aste honetan, Fed-en liburu beixa argitaratu da. Bertan esaten denaren arabera, urakanen ondorioz, zenbait barrutik jarduera ekonomikoa eten egin behar izan zuten, batez ere garraioen, energiaren eta nekazaritzaren sektoreetan. Hala ere, jarduera ekonomikoaren hazkundera apala eta moderatuaren artekoa izan da, irailetik urriaren hasierara arte. Gainera, enpleguaren hazkundera laua eta moderatuaren artekoa izan zen, eta inflazioak igoera apala izan zuen.


Adierazlearen azalpena

Liburu Beixa Erreserba Federalak (Fed-ek) argitaratzen du, FOMCren (Merkatu Irekiaren Batzorde Federalaren) bilera bakoitza baino bi aste lehenago, gutxi gorabehera. Fed-ek erakundeen aldetik (enpresak eta beste eragile batzuk) jaso dituen iruzkinen laburbilduma bat da, haien laguntza eskaintzen dutena Iparramerikako ekonomiari buruzko ikuspegi, iritzi eta oharrekin. Barruti eta jarduera-sektore bakoitzaren azalpen bat eskaintzen du, bai eta nazio ikuspegiko laburpen bat ere.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Industria-ekoizpena % 0,3 hazi zen irailean, eta berreskuratzen ari dela erakutsi zuen, Harvey eta Irma urakanen ondorioz, abuztuan behera egin ondoren. Ekonomistek espero zuten % 0,2ko hazkundera gainditu egin da, eta, batez ere, % 0,1 igo den automobilen produkzioari eta % 0,4 igo den meatzaritzari esker izan da. Datu horiekin, azken hamabi hiletan, industria-ekoizpenak % 1,6 apal bat egin du gora, funtsean, meatzaritzaren eta zerbitzu publikoetako enpresen indarrarengatik.


Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkunderaren analisia egiteko.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: BPGd



Datuaren analisia

Hirugarren hiruilekoko BPGd-a urte arteko % 6,8 hazi zen, espero zen mailan. Merkataritza eta banku-mailegutan espero zena baino hazkunde handiagoa lagungarria izan zen igoera horretan. Hala ere, datu hori bigarren hiruilekoko % 6,9tik behera egon zen, aktibo finkoen inbertsioaren hazkundera moteldu zelako.


Adierazlearen azalpena

Estatistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Txinak ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denboratarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: BALANTZA KOMERTZIALA



Datuaren analisia

Japoniako balantza komertzialak 670.170 milioi yeneko superabit komertziala izan zuen irailean, aurreko hilean lortutakoa baino ia sei aldiz handiagoa. Iraileko superabita urte arteko % 37,7 gehiago izan zen, eta munduko hirugarren ekonomiak lau hilabetez jarraian soberakin komertziala izan du, maiatzeko datuak behera berrikusi ondoren (azkenean, defizita egon zen maiatzean).

Adierazlearen azalpena

Balantza komertzialaren saldoa esportazioen eta inportazioen arteko aldea da, hau da, herrialde batean ekoiztu eta kanpoan saltzen diren ondasunen eta zerbitzuen balioaren eta beste herrialde batean ekoiztu eta erosten diren balioaren arteko aldea. Saldoa negatiboa denean defizit komertziala ematen dela esaten da, hau da, esportazioen balioa inportazioena baino txikiagoa denean; superabit komertziala, ordea, esportazioen balioak inportazioena gainditzen duenean ematen da. Adierazle ekonomiko hori herrialde baten ordainketen balantzako osagai bat da.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus pena
10/23	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	-0.10
10/23	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-1.1
10/24	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
10/24	Frantzia	Enpresen konfiantza	--
10/24	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	--
10/24	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	57.7
10/24	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	56.5
10/24	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
10/24	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	16
10/25	Alemania	IFO enpresen egoera	115.0
10/25	Alemania	IFO aukerak	107.3
10/25	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	123.5
10/25	Erresuma Batua	Urte arteko BPGd	% 1.5
10/25	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
10/25	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 1.3
10/25	Estatu Batuak	Etxebizitza berrien salmenta	550k
10/26	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	10.8
10/26	Espainia	Langabezia-tasa	--
10/26	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
10/26	Estatu Batuak	Egiteke dauden hileko etxebizitzaren salmentak	% 0.3
10/26	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	--
10/27	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.7
10/27	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	--
10/27	Espainia	Urte arteko xehekako salmentak	--
10/27	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 2.5
10/27	Estatu Batuak	PCE nagusia (QoQ)	% 1.3
10/27	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	101.0
10/27	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
10/27	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--
10/27	Alemania	Urte arteko xehekako salmentak	% 3.0

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Itxiera mistoak burtsa-merkatuetan, positiboak Estatu Batuetan eta mistoak Europan. Ibexak itxiera negatiboa izan zuen, Kataluniako tentsioaren ondorioz. Asian, Nikkeia nabarmendu zen, 1961etik izan duen igoeren bolada onenarekin. Egoera makro egonkor batekin, inbertsiogileen arreta esparru politikora eta enpresen emaitzetara bideratu zen. Alemanian, CSUren, liberalen eta berdeen arteko negoziazioak hasi ziren, eta hitzarmena lortzeko bidean baikor agertu ziren. Espainian, Gobernuak larunbatean ekin zien 155. artikulua martxan jartzeko tramiteei, Puigdemontek esan ostean Kataluniako parlamentuak DUIa bozkatu zezakeela, elkarrizketarik ez bazegoen. AEBetan, Fed-en presidente izan daitezkeen hautagaien zerrenda kaleratu zen: John Taylor, interes-tasa altuago baten aldekoa eta Jerome Powell, diru-politikan jarrera moderatuak dituena. Horrez gain, 2018rako aurrekontuak onartu ziren, errepublikarren babesarekin soilik. Zerga-erreforma aurrera ateratzeko lagungarri izango da hori. Japonian, igandean hauteskundeak egin ziren. Abe lehen ministroaren koalizioak gehiengo zabala lortu zuen. Enpresen emaitzek, Amerikako enpresen ehuneko txiki bat argitaratu ondoren, aurreikuspenak gainditu zituzten.

ERRENTA FINKOA:

Zor publikoaren tasek, oro har, gora egin zuten, batez ere Estatu Batuetan. Zerga-erreforma aurrera ateratzeko aukerak handiagoak direnez, tasa amerikarrek gora egin zuten. Gauzak horrela, 10 urterako bonuaren errentagarritasuna 11 op igo zen, % 2,38raino. Europan, zor alemaniarrek ere gora egin zuen, eta Kataluniako ezegonkortasuna gorabehera, diferentzial espainiarra 121 puntukoa izan zen, eta ez zen aldaketarik egon. Moodysek ez zuen aldaketarik egin Espainiaren ratingean.

Kreditu-merkatuan aldaketa gutxi.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Zerga-erreforma aurrera ateratzeko eta John Taylor Fed-en presidentetzarako hautagaia izateko aukerak lagungarri izan ziren dolarrarentzat, eta % 0,36ko balioa irabazi zuen euroaren aldean. Liberak % 0,43 galdu zuen, xehekako salmenten hazkunde apalagoaren eta BoEren gobernadoreordeak azaroan tasak igotzearen alde dauden bere kideetatik aldentzeko egin zituen adierazpenen ondoren. Lehengaietan, berriz, petrolioaren prezioa % 1,98 handitu zen. Iraken horniduraren etenaldia, AEBren ekoizpen txikiagoa eta LPEEk murrizketak hedatzearen aukera lagungarri izan ziren kotizazioarentzat. Urreak % 1,85 egin zuen atzera.

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.